

## ZARAUZKO ESKOLEN ARTEKO FOROA

### Bileraren akta

#### EGUNA, ORDUA ETA LEKUA:

- 2015eko Apirilak 21, asteartea, goizeko 10:00etan.
- Etxezabala eraikinean.

#### PARTAIDEAK:

##### Ikastetxeak:

- Salbatore Mitxelena Ikastola, Josean Elola irakasle koordinatzailea eta 6 ikasle ordezkari (LHko 4 eta DBHko 2).
- Antoniano Ikastetxea, Iñaki Erostarbe irakasle koordinatzailea eta 6 ikasle ordezkari (LHko 4 eta DBHko 2).
- Orokieta Herri Eskola, Xabier Mantxola irakasle koordinatzailea eta LHko 6 ikasle ordezkari.
- La Salle Ikastetxea, Patxi Pagola irakasle koordinatzailea eta 6 ikasle ordezkari (LHko 2 eta DBHko 4).
- Lizardi Institutua, Jone Irastorza irakasle koordinatzailea eta DBHko 4 ikasle ordezkari.
- Oteitza Lizeoa, Ainhoa Mateos irakasle ordezkaria eta 4 ikasle ordezkari.

##### ARAZI:

- Eneko Salaberria
- Nerea Ibañez

#### GAI-ZERRENDAA:

##### 1. Sarrera:

- Eskolako Agenda 21ean emandako pausuak azaldu.
- Hurrengo urratsak aurkeztu.
- Foroaren lan-dinamikak azaldu, bileraren helburuak zehaztu.

##### 2. Udalbatzarrean aurkeztuko diren proposamenen aukeraketa eta banaketa:

- Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako lan-dinamika.
- Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako lan-dinamika.

##### 3. Udalbatzarrean aurkeztuko diren proposamen eta konpromisoen lanketa:

- Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek elkarlanean proposamenak lantzeko ereduak osatu.

#### BILERAREN BILAKAERA:

Parte-hartzaile guztiei ongi etorria eman ondoren Araziko ordezkariak aurkezpena egin du, bileraren helburuak azalduz. Jarraian, Eskolako Agenda 21 programaren barne 2014-2015 ikasturtean zehar emandako pausuak gogoratu dira, eta hurrengo urratsak aurkeztu dira.

Behin bileraren testuingurua azalduta eta helburuak zehaztuta, Lehen Hezkuntzako ikasleek Lehen Hezkuntzatik jasotako proposamen guztien arteko aukeraketa eta banaketa egiteari ekin diote. Era berean, eraikinaren beste eremu batean, ikasle helduenek (DBH eta helduagoak) Bigarren Hezkuntzatik, Batxilergotik

eta Heziketa Zikloetatik jasotako proposamen guztien arteko aukeraketa eta banaketa egiteari ekin diote.

### Lehen Hezkuntzako ikasleek buruturiko lana:

Lehen Hezkuntzako 16 ordezkari izan dira bileran: Salvatore Mitxelena Ikastolako 4 ikasle, Antoniano Ikastetxeko 4 ikasle, La Salle Ikastetxeko 2 ikasle eta Orokieta Ikastetxeko 6 ikasle. Lan-dinamikaren helburuen artean ikastetxe ezberdinetako ikasleak elkarlanean aritzea dagoenez, honako taldeak sortu dira:

- o LH 2 zikloko Orokieta Ikastetxeko 2 ikasle eta S. Mitxelena Ikastolako 2 ikasle.
- o LH 2 zikloko Orokieta Ikastetxeko 2 ikasle eta Antoniano Ikastetxeko 2 ikasle.
- o LH 3 zikloko Orokieta Ikastetxeko 2 ikasle eta S. Mitxelena Ikastolako 2 ikasle.
- o LH 3 zikloko Antoniano Ikastetxeko 2 ikasle eta La Salle Ikastetxeko 2 ikasle.

Talde bakoitzari Lehen Hezkuntzako proposamenak banatu zaizkio, hiru gai ezberdinen arabera sailkatuta. Gai bakoitzeko proposamenak gutunazal batean sartu dira, proposamen bakoitza txartel batean aurkeztu delarik.

- Lehen gaia: "Osasuna eta Azoka" (gutunazal gorrian).
- Bigarren gaia: "Ekoizpena eta Kontsumoa" (gutunazal berdean).
- Hirugarren gaia: "Ekintzen garapena" (gutunazal urdinean).

Taldeko ordezkariak gutunazal bakoitzeko proposamenak aztertu ondoren, garrantzitsuena adostea eskatu zaie. Ariketaren amaieran talde bakoitzeko 3 proposamen garrantzitsuenak aukeratu dira (gai bakoitzeko proposamen bat), eta amankomunean jarri dira.

Bozka bat baino gehiago jaso duten proposamenak zuzenean aukeratu dira udalbatzarrean aurkezteko:

1. Lehen gaia (gorria), 2 zenbakia, 2 bozka.
2. Bigarren gaia (berdea), 1 zenbakia, 2 bozka.
3. Hirugarren gaia (urdina), 1 zenbakia, 4 bozka.

Talde bakoitzak proposamen bat lantzea adostu denez, laugarren proposamena aukeratzeko bozka bana jaso duten proposamen guztiak luzatu zaizkio LH 3. zikloko taldeari. Ikasle guztien adostasunarekin, lehen gaiaren 4. proposamena aukeratu da (2 bozka).

Lehen Hezkuntzako ikasleek proposamen aukeraketa egin ondoren, zozketa antolatu da ikastetxeen arteko banaketa zehazteko, eta proposamenak lantzeko ereduak banatu da. Eredu honen bidez talde bakoitzari egokitutako proposamena landu dute, ekarpenak eginez eta behin betiko formulazioa ezarri. Modu berean, ikasleen konpromisoa adierazi dute, eta irudiak zehazten hasi dira.

Amaieran, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek egindako aukeraketak bateratu egin dira, foroaren emaitza elkarren artean konpartitzeko eta udalbatzarren egunean errepikapenak saihesteko helburuarekin.

### LA SALLE IKASTETXEA

- **Hemengo arrantzaleak eta nekazariak baloratzeko, hemengo produktuak kontsumitzea. Horrela, dieta osasungarriagoa edukiko genuke baino, gainera, hemengo jendeari lanpostuak emango genioke. Eta aparte, azokara gehiago etortzea eta toki gehiago egotea.** .2 bozka lortuta.

### SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

- **Bertako arrain gehiago erostea. Lanpostu gehiago sortuko genituzke eta gainera, gutxiago bidaiatuko genuke, eta horrela gutxiago kutsatuko genuke.** 2 bozka lortuta.

*\*DBHko ikasleek aukeraturiko proposamenarekin bat datorrenez, bat bestearen jarraian aurkeztea erabaki da. Lhko proposamena sarrera gisa, eta DBHko proposamena elkarren jarraian. Hortaz, biak*

aurkeztu ondoren, Udalak erantzun amankomuna ematea aurrirakusten da.

Jarraian, DBHko proposamena zehazten da: "Jendeak arrainei dagokienez gehiago begirutzen dio prezioari jatorriari baino. Bertako arraina erosteko herrietan informazioa falta da, konturatu daitezten, kanpoko arrainaren kalitatea baxuagoa dela eta hain urrutitik ekarrita kutsadura handia sortzen dela mundu mailan. Kontzientzia berri honekin lortuko litzateke bertako arraina gehiago saltzea eta gure itsasontzi flota mantentzea".

#### OROKIETA IKASTETXEA

- **Urteko bi garaietan (udaberrian eta neguan) Zarautz inguruko baserrietara irteerak antolatzea, baratzaren egoera nola aldatzen den ikusteko eta baserrietan egoten diren animaliak ezagutzeko. Arrantzaleen bizimoduaz jabetzeko irteerak egitea, arrain espezieak ezagutzeko eta bertakoak diren ala ez jakiteko.** 4 bozka lortuta.

*\*DBHko ikasleek aukeraturiko proposamenarekin bat datorrenez, edukia zatitzea adostu da. Hortaz, LHko proposamenean baserrietara irteerak aipatuko dira, eta DBHko proposamenean arrain eta arrantzaleen ingurukoa aipatuko da.*

#### ANTONIANO IKASTETXEA

- **Supermerkatuetan leku bat egotea baserriko produktuekin, baserritarrek diru gehiago lortzeko. Kontsumo talde bat Zarautzen egotea.** 2 bozka lortuta.



#### **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek buruturiko lana:**

Bigarren Hezkuntzatik, Batxilergotik eta Heziketa Zikloetatik 16 ordezkari izan dira bileran: Salvatore Mitxelena Ikastolako 2 ikasle, Antoniano Ikastetxeko 2 ikasle, La Salle Ikastetxeko 4 ikasle, Lizardi Institutuko 4 ikasle eta Oteitza Lizeoko 4 ikasle. Lan-dinamikaren helburuen artean ikastetxe ezberdinetako ikasleak elkarlanean aritzea dagoenez, honako taldeak sortu dira:

- DBH1 zikloko La Salle Ikastetxeko 2 ikasle eta Lizardi Institutuko 2 ikasle.
- DBH 2 zikloko Salvatore Mitxelena Ikastolako 2 ikasle eta Antoniano Ikastetxeko 2 ikasle.
- DBH 2 zikloko La Salleko Ikastetxeko 2 ikasle eta Oteitza Lizeoko 2 ikasle.
- DBH 2 zikloko Lizardi Institutuko 2 ikasle eta Oteitza Lizeoko 2 ikasle.

Ikasle bakoitzari Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta heziketa Zikloetako ikasle guztiek sorturiko proposamen zerrenda luzatu zaio, bakarkako lanean lehentasunak finkatzea eskatuz (azpigi bakoitzeko 5 proposamenen aukeraketa). Ondoren, talde bakoitzari kolore ezberdinetako 3 gometx banatu zaizkio (gorria, 3 bozka; horia, 2 bozka; berdea, bozka 1). Paretean proposamen zerrendak itsatsi egin dira, eta taldekako adostasuna lortu ondoren, aukeraturiko proposamen bakoitzaren ondoan gometxa itsatsi dute. Araziko ordezkariak bozkek batu eta aukeraturiko 5 proposamenak banatzeko ardura izan du, ikastetxeen arteko zozketa eginez.

Horrela, proposamen aukeratuak eta ikastetxeen arteko banaketa honakoa izan da.

#### SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

- **Heldu gabe dauden produktuak ez saltzea, eta enpresei neurriak aplikatzea (arrain txikiak ez arrantzatzea espezie hori desagertzeko zorian egongo litzatekeelako, hau da, ugaltzeko denbora eduki behar dute).** 6 bozka lortuta.

#### ANTONIANO IKASTETXEA

- **Dendek produktu ekologikoen eskaera handitu dezatela, eskaera hau herriko baratzak dituztenei luzatuz. Honela, bertako produktuak bultzatzeaz gain, baserriarrek produktu ekologikoak ekoiztea ere bultzatuko litzateke. Bestalde herritarrak ere bultzatu ditzake baratz ekologiko berri gehiago sortzeko.** 10 bozka lortuta.

#### LA SALLE IKASTETXEA

- **Jendeak arrainei dagokienez gehiago begiratzen dio prezioari jatorriari baino. Bertako arraina erosteko herrietan informazioa falta da, konturatu daitezen, kanpoko arrainaren kalitatea baxuagoa dela eta hain urrutitik ekarrita kutsadura handia sortzen dela mundu mailan. Kontzientzia berri honekin lortuko litzateke bertako arraina gehiago saltzea eta gure itsasontzi flota mantentzea.** 6 bozka lortuta.

#### LIZARDI INSTITUTUA

- **Ikastetxeentzako bisitak prestatu: baserrietara (barazkiak, fruituak, abereak...) eta portuetara.** 6 bozka lortuta.

#### OTEITZA LIZEOA

- **Informazio kanpainak antolatzea sasoi bakoitzeko frutak eta barazkiak zeintzuk diren ezagutarazteko eta osasunarentzat eta ingurumenarentzat hobetoak direla jakiteko.** 6 bozka lortuta.


Proposamenak eskolen artean banatu ondoren, hauek lantzeko eredia aurkeztu da, ondoko atalak jasotzen dituenak:

- Ikastetxearen izena.
- Proposamenaren formulazioa eta guk harturiko konpromisoa.
- Beste ikasleek egindako ekarpenak.
- Proposamenak aberasteko irudiak.

ESKOLEN ARTEKO FOROAN AUKERATU DEN PROPOSAMENAREN FORMULAZIOA	HERRIKO BESTE IKA SLEEK EGINDAKO EKARPENAK
...ETA HARTURIKO KONPROMISOA	
PROPOSAMENAK ABERA STEKO IRUDIA	

IKASTETXEA: .....

UROLAKOSTAKO ESKOLAKO AGENDA 21  
2014-2015 IKASTURTEA, ELIKADURA, JASANGARRIA  
ZARAUZKO UDALBATZARRA



Ikastetxe bakoitzeko ikasleek haiei egokitutako proposamenen inguruko egindako lanketa honi esker, proposamenaren oinarria zehazteko aukera izan da, gainerako ikaskideen ekarpenak ere jasoz:

#### SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

- **Heldu gabe dauden produktuak ez saltzea, eta enpresei neurriak aplikatzea (arrain txikiak ez arrantzatzea espezie hori desagertzeko zorian egongo litzatekeelako, hau da, ugaltzeko denbora eduki behar dute)** proposamenetik abiatuz landuko den ikuspegia: **heldu gabe dauden produktuak saltzearen ondorio kaltegarriak jakinarazteko informazioaren dibulgazioa (populazioen murrizketa –antxoia duela urte batzuk, esate baterako-)**...

#### ANTONIANO IKASTETXEA

- **Dendek produktu ekologikoen eskaera handitu dezatela, eskaera hau herriko baratzak dituztenei luzatuz. Honela, bertako produktuak bultzatzeaz gain, baserriarrek produktu ekologikoak ekoiztea ere bultzatuko litzateke. Bestalde herritarrek ere bultzatu ditzake baratz ekologiko berri gehiago sortzeko** proposamenetik abiatuz landuko den ikuspegia: **herritarrentzako baratz eskaintza handitzea...**

#### LA SALLE IKASTETXEA

- **Jendeak arrainei dagokienez gehiago begiratzen dio prezioari jatorriari baino. Bertako arraina erosteko herrietan informazioa falta da, konturatu daitezten, kanpoko arrainaren kalitatea baxuagoa dela eta hain urrutitik ekarrita kutsadura handia sortzen dela mundu mailan. Kontzientzia berri honekin lortuko litzateke bertako arraina gehiago saltzea eta gure itsasontzi flota mantentzea** proposamenetik abiatuz landuko den ikuspegia: **bertako eta sasoiaren araberako arrainen inguruko informazio kanpaina (arrandegietan kartelak egutegiakin, eskuorriak...).**

#### LIZARDI INSTITUTUA

- **Ikastetxeentzako bisitak prestatu: baserrietara (barazkiak, fruituak, abereak...) eta portuetara** proposamenetik abiatuz landuko den ikuspegia: **arrantzaleen lana gertutik ezagutzeko (arrantzarako teknikak eta abar) bisitak antolatzea.**

*LHko ikasleek baserriak bisitatzeko proposamena aurkeztuko dute:*

*Urteko bi garaietan (udaberrian eta neguan) Zarautz inguruko baserrietara irteerak antolatzea,*

*baratzaren egoera nola aldatzen den ikusteko eta baserrietan egoten diren animaliak ezagutzeko.*

#### OTEITZA LIZEOA

- **Informazio kanpainak antolatzea sasoi bakoitzeko frutak eta barazkiak zeintzuk diren ezagutarazteko eta osasunarentzat eta ingurumenarentzat hobeagoak direla jakiteko** proposamenetik abiatuz landuko den ikuspegia: **informazio kanpainaren aukera ezberdinak planteatuko dira (egutegiak garaian garaiko produktuekin...).**

Hala, eskola bakoitzeko ordezkariak, beraiei dagozkien proposamenen aurkezpena garatu ahal izan dute, azkeneko egokitzapenak (irudien txertaketak eta abar) eskolan egiteko aukera izango dutelarik.



**ERANSKINA:** Behin aukeraturiko proposamen guztiak aztertuta eta errepikapenak ekiditeko helburuarekin, Udaltzarrean aurkeztuko diren proposamenak zehaztu dira. Ikus:

#### **UDALBATZARREAN AURKEZTUKO DEN PROPOSAMEN ZERRENDA**

##### OROKIETA IKASTETXEA

- **Urteko bi garaietan (udaberrian eta neguan) Zarautz inguruko baserrietara irteerak antolatzea, baratzaren egoera nola aldatzen den ikusteko eta baserrietan egoten diren animaliak ezagutzeko.** 4 bozka lortuta.

##### LA SALLE IKASTETXEA

- **DBH: Jendeak arrainei dagokienez gehiago begirutzen dio prezioari jatorriari baino. Bertako arraina erosteko herrietan informazioa falta da, konturatu daitezen, kanpoko arrainaren kalitatea baxuagoa dela eta hain urrutitik ekarrita kutsadura handia sortzen dela mundu mailan. Kontzientzia berri honekin lortuko litzateke bertako arraina gehiago saltzea eta gure itsasontzi flota mantentzea** proposamenetik abiatuz landuko den ikuspegia: **bertako eta sasoiaren araberako arrainen inguruko informazio kanpaina (arrandegietan kartelak egutegiarekin, eskuorriak...).**
- **LH: Hemengo arrantzaleak eta nekazariak baloratzeko, hemengo produktuak kontsumitzea. Horrela, dieta osasungarriagoa edukiko genuke baino, gainera, hemengo jendeari lanpostuak emango genioke. Eta aparte, azokara gehiago etortzea eta toki gehiago egotea.** .2 bozka lortuta.

#### SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

- **DBH: Heldu gabe dauden produktuak ez saltzea, eta enpresei neurriak aplikatzea (arrain txikiak ez arrantzatzea espezie hori desagertzeko zorian egongo litzatekeelako, hau da, ugaltzeko denbora eduki behar dute)** proposamenetik abiatuz landuko den ikuspegia: heldu gabe dauden produktuak saltzearen ondorio kaltegarriak jakinarazteko informazioaren dibulgazioa (populazioen murrizketa –antxoia duela urte batzuk, esate baterako-)...
- **LH: Bertako arrain gehiago erostea. Lanpostu gehiago sortuko genituzke eta gainera, gutxiago bidaiatuko genuke, eta horrela gutxiago kutsatuko genuke.** 2 bozka lortuta.

#### ANTONIANO IKASTETXEA

- **DBH: Dendek produktu ekologikoen eskaera handitu dezatela, eskaera hau herriko baratzak dituztenei luzatuz. Honela, bertako produktuak bultzatzeaz gain, baserritarrek produktu ekologikoak ekoiztea ere bultzatuko litzateke. Bestalde herritarrek ere bultzatu ditzake baratz ekologiko berri gehiago sortzeko** proposamenetik abiatuz landuko den ikuspegia: herritarrentzako baratzaren eskaintza handitzea...
- **LH: Supermerkatuetan leku bat egotea baserriko produktuekin, baserritarrek diru gehiago lortzeko. Kontsumo talde bat Zarautzen egotea.** 2 bozka lortuta.

#### LIZARDI INSTITUTUA

- **Arrantzaleen lana gertutik ezagutzeko (arrantzarako teknikak eta abar) bisitak antolatzea.**

#### OTEITZA LIZEOA

- **Informazio kanpainak antolatzea sasoi bakoitzeko frutak eta barazkiak zeintzuk diren ezagutarazteko eta osasunarentzat eta ingurumenarentzat hobeagoak direla jakiteko** proposamenetik abiatuz landuko den ikuspegia: informazio kanpainaren aukera ezberdinak planteatuko dira (egutegiak garaiari garaiako produktuekin...).